

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'La trinchera infinita', gaurtik

Bi pelikula berri jarriko dituzte Biterin, asteburu honetan. Gaur 22:00etako saioarekin hasi eta astehenera bitarte, *La trinchera infinita* ikusteko aukera izango da, 7 urtetik gorakoentzat; eta bihar eta etzi, *Juguetes guardianes* jarriko dute, 16:30etan, haurrentzat. ■

■ ASTIGARRAGA-HERNANI III.SAGARDO FORUMA

Munduko sagardogile adituak, Sagardo Forumen

Sagardoari lotutako ekoizle, profesional eta eragileak batuko dituen III. Sagardo Forumak antolatuko du azaroaren 21etik 25era. Orona Ideon eta Kurasaalen egingo dira ekitaldiak.

SAGARRARI, sagarraren eratorri eta sagardoaren kulturari nahiz turismoari buruzko jardunaldiak batuko ditu Sagardoaren Lurraldeak antolatuko duen III. Sagardo Forumak. Azaroaren 21etik 25era egingo da, Hernaniko Orona Ideon eta Donostiako Kurasaalen. Hilaren 21 eta 22an jardunaldi teknikoak egingo dira, profesional bideratuta, Oronan. Hilaren 23tik 25era, berriz, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa eta, aurrenekoz, Nazioarteko Sagardo Azoka; biak, Kurasaalen, eta publikoari irekita.

Atzo egin zuten aurkezpena, Oronan, Xabier Lertxundi eta Xabier Urdangarin, Hernani eta Astigarragako alkateak; Imanol Lasa, Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Ingurune Diputatuak; Asier Arrese, HAZiko Zuzendariak; eta Oihana Gincerain sagardogile eta Sagardoaren Lurraldeko ordezkariak.

«Sagarrak eta sagardoak ematen diote gure lurraldeari identitate propioa»

Sagardo Forumak profesional bideratutako jardunaldi teknikoekin hasiko da, hilaren 21 eta 22an, Oronan. Bertako eta nazioarteko 21 profesional hartuko dute parte, sagardoaren munduak azken urteotan bizitako bilakaera eta egungo egoeraren inguruko ezagutza orokorra partekatuz, hiru ardatz tematikotan antolatuta: sagarra, sagardoa eta sagardotegiak baliabide turistiko gisa.

Hain zuzen, prentsaurrekoan nabarmendu zen 80eko hamarkadatik hona sagarra eta sagardoaren sektoreak izan duen aurrerapena, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapena sortu denetik elkarlanean gauzak antolatzeak daukan garrantzia eta Sagardo Forum bezalako ekitaldiak antolatzeak nazioartean egiten diren sagardoak ezagutzeko eta aldi berean bertako sagardoak nazioartean ezagut-



Atzo aurkeztu zuten Sagardo Forumak, antolatzaile eta babesleek.

AZAROAK 21 - ORONA IDEO

09:00, Akreditazioak. Ongietorria.
09:30-11:10, Bost hitzaldi. Gaia: Lehengaiak: Sagarraren laborantza eta kultura.
11:40-13:45, Lau hitzaldi, mahai-ingurua eta showcooking-a. Gaia: Sagardoaren Turismoa: Txotx esperientzia.

AZAROAK 22 - ORONA IDEO

09:30-13:00, Sei hitzaldi eta mahai-ingurua. Gaia: Sagardoaren dibertsifikazioa munduan.

AZAROAK 23 - KURSAAL

09:00-13:00, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa. Dastatzaileentzako dastaketak.

AZAROAK 24 - KURSAAL

11:00-18:00, I. Nazioarteko Sagardo Azoka eta sagardoaren dastaketa. Publiko orokorrari irekia. Sarrera: 10 euro.

AZAROAK 25 - KURSAAL

10:30, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketako sari banaketa.
10:30-14:30, I. Nazioarteko Sagardo Azoka. Publiko profesionalarentzat.

Informazio osoa, eta akreditazio eskaerak zein sarrera salmenta: www.sagardoforum.eus

doza Jatorri Izendapena sortu denetik elkarlanean gauzak antolatzeak daukan garrantzia eta Sagardo Forum bezalako ekitaldiak antolatzeak nazioartean egiten diren sagardoak ezagutzeko eta aldi berean bertako sagardoak nazioartean ezagut-

tzera emateko daukan ahalmena. Imanol Lasa diputatuak nabarmendu zuen «indar berezia» ematen ari direla, «lehen sektorea eta turismoa indartzen dituzten ekimenei. Sagarra eta sagardoak ematen diote gure lurraldeari identitate propioa.

Gainera, Sagardo Forumak eutsi dio bultzatu beharreko erronkari, nazioartekotzeari, Nazioarteko Azokarekin».

Nazioarteko Lehiaketa, eta, aurrenekoz, Azoka

Hilaren 23tik 25era Kurasaalen jarraituko dute ekitaldiek. Azaroaren 23an II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa egingo da, eta 14 herrialdetako 190 sagardok hartuko dute parte, 9 kategoriatan.

Berritasuna, hala ere, Nazioarteko Sagardo Azoka izango da. Publiko orokorrari irekiko zaio hilaren 24an, eta profesional bideratutako sagardoak, zaporetakoak, lupulatuak edota apfelwinea dastatu ahal izango dira, eta Euskal Sagardoa Jatorri Deitura dutenak.

Akreditazio eta sarrerak lortu daitezke webgune honetan: www.sagardoforum.eus. ■

■ GOIZUETA HITZALDIA

Azukreari buruz, hitzaldia gaur

Azukrearen kontsumoaren inguruan, hitzaldia eskainiko dute gaur, adin guztietako herritarrei zuzenduta: *Azukrearen gazi-gozaok*. Xalto eskolako jangelan izanen da, arratsaldeko 19:00etan hasita. ■

■ ASTIGARRAGA-HERNANI BERTSOLARITZA

Finalerako pasea jokoan, Laburuk eta Martikorenak

Etzi izango da, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren aurreneko finalaurrekoa, Arrasaten. Bertan ariko dira Eñaut Martikorena hernaniarra eta Agin Laburu astigarrarra, finalerako pasearen bila; 17:00etan, Uarkape frontoian. Sarrerak, salgai: www.bertsosarrerak.eus. ■

■ ASTIGARRAGA KIROLDEGIA

Ziklo eta zumba saioak, gaur

Bi *masterclass* izango dira gaur, kiroldegian, 19:00etan hasita: ziklo eta zumba. Aurrez apuntatu behar zen. ■

■ HERNANI LTD KANALAK

Aste honetan, LTD kanalen aldaketa

Itelazpi sozietate publikoak, Hernani-Ereñotzun estaldura ematen duen enpresak, jakinarazi du aste honetan abiarazi dituela LTDren zentro hedagailuaren instalazioa egokitze beharrezko lanak. Hori dela eta, gomendatu du telekomunikazio enpresa instalatzaileekin harremanetan jarri eta telebista berriro ere sintonizatzea. ■

AINHOA
Janaridenda
Nagusia 20, Astigarraga
943 55 12 93

Gerizpe
Kafetegia-Okindegia
682 156 795
Kale nagusia 5, Astigarraga

JOXE MARI
EDARITEGIA
FIDELTASUN TXARTELA
Astelehenera ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzeko, zozketan parte hartuko duzu.
ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN
Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

OGI BERRI OKINDEGIA
Rosa Morla
Kale Nagusia, 31
20115 ASTIGARRAGA
Tfn: 943 55 41 04 - 618 269 314
rmorlalungo@yahoo.es

TILIN & TOLON
BELAR DENDA
TERAPIA NATURALAK KONTSULTAK
943 55 56 94
Txirra, 10 - HERNANI



GAUR Zakartu egingo da denboralea, bihar. Tenperaturak beste koxka bat jaitziko dira, eta izotza botako du barnealdean. Elur-maila 700-900 metroan egongo da. Zaparradak botako ditu, eta posible da ekaizak jo eta kazkabarra egitea. Haizea ere, zakar. **Min.5° / Max.10°**



BIHAR Antzeko jarraituko du bihar. Etengabe egin dezake euria, eta ekaizak ere jo dezake, kazkabarra eta guzi. Elur-maila 600-800 metrora jaitziko da, eta arratsaldean egingo du gora. Ipar-mendebaldeko haize zakarrek hasi, eta ahultzeraz egingo du gero. **Min.5° / Max.10°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI LANGILE IKASTOLA

Txupinazoa gaur, 50garren urteurreneko ospakizunei

Hasiera emango die Langile ikastolak, urteurrena ospatzeko ekintzei. Bingoa antolatuta zegoen, Tilosetan, baina ez da egingo.

URTEURREN borobila izango du datorren urtean, Hernaniko Langile ikastolak. Eta hori ospatzeko, makina bat ekintza prestatu dituzte.

Gaur emango diete hasiera: txupinazoa egingo dute, goizean Meaben, bertako eta Bidebietako ikasle eta irakasleentzat; eta arratsaldean Laubi-

dietan. Urteurreneko kamixetekin egongo dira, Igor Baiona diseinatzaileak egindako logorekin, Langileko ikasle ohia.

Meaben, ikastola nola apainduta dagoen ikusi, hamaiketakoa egin, *Zorionak zuri* kantatu, serpentina etxaferoak bota, eta aurpegiak margotuko dituzte, besteak beste. Eta Laubidietan,

ikastola apaindu, txupinazoa bota, eta ekitaldi nagusia.

Bingoa ere egitekoak ziren Tilosetan, baina eguraldiagatik, bertan behera geratu da.

Mahai ingurua, asteartean Hurrengo hitzordua ere, gertu dute. Datorren asteartean egingo dute aurreneko mahai in-

gurua, 17:00etan hasita, Laubidietako jangelan. Bertan hartuko dute parte, Langileko irakasle ohiek, gaur egungo irakasleek, eta MCEPko (Movimiento Cooperativo de Escuela Popular) kide batek; eta aztertuko dute, Célestin Freinet irakasle eta pedagogo frantsesa zenaren eragina, Langile ikastolan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

GOIZUETA ESKU PILOTA

Umore Onak, zazpi zita gaur

Gaur izanen du segida, Umore Ona Esku Pilota Txapelketak, zazpi partidurekin. 17:30etan hasiko dira, Goizuetako frontoian, eta jokoan izanen dira zazpi goizuetar ere: Seges-Zurutza eta Narbarte-Sagardui bikoteak elkarren kontra, umee-tan; Sagardui-Lujambio, kimue-tan; eta Antton Apezetxea, Zabala amezketarrekin, 22 urtez azpikoetan. ||

HERNANI URUMEA HERRIGUNEA

Tailandiari buruz, proiektzioak

Gaurtik igandera, PM2.5 Tailandiako egoera politikoari buruzko proiektzioak jarriko dituzte, Urumea Herrigunean. Gaurkoa, 18:00etan. ||

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

Hernaniko preso eta iheslariaren senide eta lagunek deituta, kontzentrazioa egingo dute gaur, 20:00etan Zinkoenean. ||

IRAGARKI MERKEAK

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Hernaniko jatetxe batean, astelehene-tik ostiralera lan egiteko. Deitu: 609 655 607

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

MERTXE GASTESI IBARRA

Atzo hil zen Hernanin, 57 urte zituela.

Begiratu zure gainera izar guztiak zuretzat daude.

Hatxe, Nahikari eta Jon, Hegoitz, Irati eta Kimetz.

Gonbidatzen zaituztegu **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZORTZIETAN, HERNANIKO ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN** egingo den azken agurrera. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko azaroaren 15ean

MERTXE GASTESI IBARRA

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.

HERNANDEZ RUIZ DE LARRINAGA FAMILIA

Hernanin, 2019ko azaroren 15ean

MERTXE GASTESI IBARRA

Momentu zailenetan ere paregabea izan zarelako, beti maiteko zaitugu.

ZURE LAGUNAK

Hernanin, 2019ko azaroren 15ean

MERTXE GASTESI IBARRA

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko. Besarkada bat familiari.

HERNANIKO UDALEKO LAB SINDIKATUA

Hernanin, 2019ko azaroren 15ean

MERTXE GASTESI IBARRA

Besarkada haundi bat senide guztientzat.

HATXEREN LABeko LAGUNAK

Hernanin, 2019ko azaroren 15ean

† JUAN SAROBE ARAMBURU

"JUANITO"

Atzo hil zen, 84 urte zituela

- Goian Bego -

Emaztea: Maritxu Oyarbide; seme-alabak: Mari Carmen, Josune eta Josetxo; biloba: Jon; anai-arrebak: Jose Mari eta Gloria (†); ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko azaroaren 15ean

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egingo da goizeko 8:30ak arte.

JUANITO SAROBE ARAMBURU

Gogoan ditugu zurekin elkartean bizitutako garaiak.

EREÑOTZUKO UR-MIA ELKARTEA

Ereñotzun, 2019ko azaroren 15ean

JUAN SAROBE ARAMBURU

"JUANITO"

- Goian Bego -

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko, baina bizitzen geran artean ez zaitugu ahaztuko.

KOINATU-KOINATAK ETA ILOBAK

Hernanin, 2019ko azaroaren 15ean

ANTONIO AVILA MUÑOZ

- Goian Bego -

ZURE BATZORDEKO LAGUNAK

Jose eta Asun, Juan Antonio eta Marian, Jesus eta Agustina, Kontxi eta Oskar, Rafa eta Goyi, Alfonso eta Nekane, Ramon eta Ana, Andoni eta Ainhoa, Ruben eta Koro, Esteban eta Mari Jose (†) Miguel Angel eta Olatz, Javi eta Ana, Pascual eta Loli, Javi eta Rakel.

KAROBI ELKARTEA

Hernanin, 2019ko azaroaren 15ean

ANTONIO AVILA MUÑOZ

Betiko izango zaitugu gogoan

KAROBI ELKARTEA

Hernanin, 2019ko azaroaren 15ean